



Beldur Barik-en 'TOPAKETA 2011' jaialdiaren barruan jarduera-egitarau zabala izango da hilaren 26an, larunbatean, Donostian

'Beldur Barik!' lehiaketaren bigarren edizio hau oso arrakastatsua izan da, izan ere, parte-hartzeari dagokionez, errekorra lortu da, Euskadiko udalerri guztietako neska eta mutik gazteek **250 lan** aurkeztu baitituzte. Bada, arrakasta horren ondoren, datorren larunbatean, **azaroaren 26an**, 'Topaketa Beldur Barik 2011' jaialdia ospatuko da **Donostian**. Jai-giroko topaketa honek kolektibo ezberdinen esperientziak ezagutzea ahalbidetuko die neska gazteei, eta, halaber, berdintasunaren alde garatzen ari diren ekimenak zabaltzeko plataforma gisa balio ahal izango du.

'Topaketa 2011' jaialdiaren egitaraua. Larunbata, azaroak 26. Donostia

Lekuak: - EMAKUMEEN ETXEA (Okendo kalea 9)
- KURSAAL ZENTROA

➤ GOIZEAN

> 11:15 Ongietorria, gosaria eta bisita gidatua

> 12:00etatik 14:00etara. Aldi bereko tailerrak

//Autodefentsa feminista, gure aldarria eta jarduna" (neskentzat soilik)

// Feminista naiz eta harro nago!!! (neskentzat soilik)

// Txapa-tailerra (mistoa)

➤ EGUERDIAN

> 14:00. Self-service bazkari feminista



> **15:30etik 16:30era. Musika-emanaldia: 'De espaldas al patriarcado'**

(kantautore gazte madrildarrak)

➤ **ARRATSALDEAN**

> **16:30etik 18:30era. Aldi bereko tailerrak**

// Ekintza Zuzena Feminista (neskentzat soilik)

// Ligatzen duzunean, ez zaitez liatu (mistoa)

// "Riots not diets: emakumeak eta musika, DJ tailerra (neskentzat soilik)

> **19:00etatik 20:00etara. Kalejira** Ondarroa, Ermua, Basauri, Mamiki, Gasteiz eta Durangoko Emakume Bandekin. **Ibilbidea: Emakumeen Etxea-Kursaal Zentroa.**

> **20:00etatik 21:00etara. Sari-banaketa Kursaal Zentroan.**

> **21:00. Kontzertua: 'De espaldas al Patriarcado'.** Kursaal Zentroa.

> **21:45. DJ kontzertua: 'Placida Ye-Ye'.** Kursaal Zentroa.

> **22:30. Itzulera** autobusetan, Kursaaletik.

Egun osoan zehar:

> **'Beldur Barik Lehiaketa'** espazioa, lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusteko.

> **'Truke Gune Feminista'** (kolektibo feminista desberdinen arteko topagunea)

INFORMAZIO GEHIAGO: www.beldurbarik.org